

Hemen gaude beraz Senpereko seme Grazien Ademaz oroitzeko. Milesker Herriari eta andere auzapezari arratsalde goxo eta ospetsu hau antolatzeke egin duten lanaz eta eman laguntzaz. Adema Zaldubiren obraz mintzatuko zaizkigu adituak ixtanteko aterbean. Elizaren paretean dagoen eskulturak idazlea digu agerian ezartzen, Solorzano artistak ederki zizelkatua digula. Eskerrak zuri ere jauna. Eta gaurko garaiak ez direla liburuari itzuliak guk ez dugu sinesten, begien aitzinean daukagun paretako itxura bezala irauten duen izakia baita gauza idatzia.

Hemen dagoen jende desberdinak Adema Zaldubi polifazetikoaren ilustrazio bat bezala dirudi. Hemen ere kantuak, edo kantikak, alegiak, gai erlijiozko edo profano, idazki serio eta irringarri maite dituen jendea. Aberriaren eta gure hizkuntzaren apologistak, gu ere, guti edo aski, bakoitzak bere historiaren edo zortearen eta ere nahiaren berri baitauka bere baitan.

Baina nola ez aipa maiatzeko Herri Urratsetik abenduko elgarretaratze honen artean, eta arte, euskararen zerbitzuko lanean ari diren senpertarrak. Herriko Etxea eta etxeokak, nik ezagutzen ez ditudan elkarteak, jende xehea, erraiten den bezala, eguneroko lanetan ari zerbait, eskolak, hiru sareetako haurrekin, Zaldubi zaharraren gaztetzen, kantatuz, eta hitz berak erabiliz, beti eta beti. Euskaltzaindia ere senpertar duzue bi egunentzat, Euskaltzaleen Biltzarra aldiz denbora gutxiagoretzat, funtsean bere xumetasunaren araberako neurri apal deliberatuan. Ez ditzagun ahantz dantzariak, gorputzaren jestuak doinua eta hitza haragitzen baitu. Aipatu ere, eta are gehiago naski Senperen, Duhau Arana etxearen teilatuaren azpian orenak eta orenak arizan den, eta urteak ari nahi duen beneditano laiko suharra, kunkurtutik bezala Zaldubien kaligrafia finen deszifratzen, gero airatuko direlarik agian lehiotik, Bilbon agerturik, eta Plaza Barritik igorririk, gaurkoaren ondotik, bospasei liburu bederen. Beste senpertar ezagun bat ere gogoan daukat, hemendik ez urrun, Oxtikenean Hatsaren poesia eta Poesiaren hatsa zazpi probientzietan hedatzen baititu, sortarazi ondoan haurren inspirazioari esker (hatsa eta inspirazioa gauza bera baitira alabainan). Zaldubik hain maite zituen Herria eta Natura ospatuz. Bi langile hauek, sinbolikoi eta errealitatez, Zaldubiren iragana eta gazteen etorkizuna uztartzen ari zaizkigu. Eskerrak zinez.

Bururatzeko, ametsa askotan mentsa izanikan ere, omen eta utopia nahitez utopikoa, zertako ez dugu asmatuko egun batez jauntsiko dela Senperera, uholde baten pare, ez gain haietako ur basek hantutako Urdazuriarena, ez eta, bereziki hemen, pentsa bekatuek metatua, baizik euskal hitzek Lapurdi literarioan berriz isuraraziko duten ibaia nasaia? Milesker deneri.

Senperen, 2007ko abenduaren 20an  
Piarres Aintziart, Euskaltzaleen Biltzarreko burua